HERNANIKO UDALA

UDAL ARAUTEGI ORGANIKOA

1989-03-30ean Osoko bilkurak onartua
1991-09-26ean Osoko bilkuran aldatuta
1995-09-29an Osoko bilkuran aldatuta
1996-03-14ean Osoko bilkuran aldatuta
2000-12-28an Osoko bilkuran aldatuta
2008-05-29an Osoko bilkuran aldatuta
2008-11-27an Osoko bilkuran aldatuta
2010-12-21ean Osoko bilkuran aldatuta

UDAL ARAUTEGI ORGANIKOA

HERNANIKO UDALA

1. Art. Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Apirilaren 2ko 1/1.985 Legeko 2. artikuluan Korporazio Lokalei beren burua antolatzeko aitortzen zaien ahalmenaz baliaturik, Hernaniko Udalak bere Udal Arautegi Organikoaren eraketari dagokion erabaki hau hartzen du.

I. TITULUA

UDAL ANTOLAKUNTZA

2.Art. Indarrean dagoen hauteskunde-legeriaren arabera hautaturiko Alkateak eta Zinegotziek osatzen duten Udalari dagokio udal gobernu eta administrazioa eramatea.

3.Art.

1. Udalak honako organo hauen bitartez erabiliko ditu bere eskumenak:
   A. Erabakitzeko ahalmenekin:
      a) Alkatea.
      b) Gobernu Batzordea.
      c) Ordezkaritza duten Gobernu Batzordekideak.
      d) Zinegotzí Delegatuak.
      e) Alkateordeak, Alkatearen ordez eta ezarriko den ordenaren arabera.
      f) Udal Osoko Batzarra.

   B. Azterketa, informeak eta proposamenak egiteko ahalmenekin:

      a) Bozeramaleen Batzordea.
      b) Batzorde Berriemaileak.
      c) Batzordeetako Lehendakariak eta ordezkariak.

   C. Erabakiak hartzeko, azterketak, informeak eta proposamenak egiteko ahalmenekin, honako Órgano Osagarriak:

      a) "Osasun eta Gizarte Ongintzako Udal Patronatua" Organismo Autonomo Lokala.
      b) "Udal Kiroldegi Patronatua" Organismo Autonomo Lokala.

2. Udalak ondoko Organismo edo Elkarteotan parte hartuko du:

   a) Añarbeko Amankomunitatea.
   b) Hernaniko Industri-Aldea, S.A.
   c) Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL).
   d) Urumea Ibaialdeko Udalen Elkartea.
   e) Eskola Kontseiluak.
   f) Gas-Hernani, S.A.
   g) Enplegu eta Sustapenerako Eskualde Elkartea.

I KAPITULUA

ALKATEA ETA ALKATEORDEAK

4.Art. Alkatea, Udal Batzarren, Gobernu Batzordearen eta Batzorde guztien lehendakaria da eta legezko testuetan ematen zaizkion eskurantzak izango ditu, berak delegatutakoak ezik.

5. Art. Alkateak, batzarrean azken bilkura arruntaz geroztik hartutako ebazpenen laburpena emango dio Udalbatzari Batzarraren bilkura arrunta bakoitzean, Zinegotziek udal administrazioaren garapenaren berri izan dezaten Gobernu organoen kontrol eta fískalizazioari begira.

6.Art.

1. Alkateak besteren esku utzi ditzake bere eskurantzak, apirilaren 2ko 7/1.985 Legeko 21, 3 eta 71. artikuluetan aipatutakoak ezik.
2. Alkateak delegazioak egin ditzake Gobernu Batzordearen alde organo kolegiatu gisa.
3. Alkateak eskurantza batzuen erabilera Gobernu Batzordeko kideen eskutan utzi dezake, Batzorde horretako kide izan gabe ere edozein Zinegotziren alde zeregin edo zerbitzu jakin batzuetarako egin ditzakeen delegazioen kalterik gabe.

   Delegazio orokorrak edo bereziak área, zerbitzu edo gai jakin bati edo batzuei egokituko zaizkio, eta dagozkion zerbitzuak zuzentzeko ahalmena ez ezik horiek orokorki kudeatzearen ere izan dezakete, hirugarren pertsonei zuzendutako ekintza administratiboen bitartez ebazpenak hartzeko ahalmena barne.

7. Art. Alkateak, bere kabuz, Gobernu Batzordearen kideen artean Alkateordeak izendatu eta kargutik kendu ahal izango ditu.

8.Art. Alkateordeek, beren mailari dagokionez, alkatearen ordez ihardungo dute beronen funtzio guztietan eta izendapen ordenaren arabera, hura kanpoan, gaiso edo eskurantzak erabiltzeko ezinduta dagoenean.

II KAPITULUA
UDAL OSOKO BATZARRA

9.Art. Udal Osoko Batzarra zinegotzi guztiek osatzen dute eta Alkatearen lehendakaritzapean iharduten du.

10.Art. Udal Osoko Batzarrari, behin hauteskunde legerian xedetatukoaren arabera eratu ondoren, legezko testuek ematen dizkioten eta berak delegatzen ez dituen eskurantzak dagozkio.

III KAPITULUA
GOBERNU BATZORDEA

11. Art.-

1. Alkateak eta beronek, bere kabuz, izendatutako Zinegotziek osatzen dute Gobernu Batzordea, beronen Lehendakaria Alkatea bera izanik.
2. Alkateak Gobernu Batzordeko kide izateko izenda dezakeen Zinegotzi kopurua ez da Udalbatzaren legezko kide kopuruaren herena baino haundiagoa izango.

12. Art. Gobernu Batzordearen Aktak eta Gai Zerrendak publikoak izango dirá, aldez aurretik haiek berrikusi eta onartu ondoren

IV KAPITULUA

BOZERAMAILEEN BATZORDEA

13. Art.

Funtzionamendu-erregimena.

Talde Politikoetako Bozeramaile titularrek osatzen dute Bozeramaile-batzordea, alkate-lehendakaria buru delarik. Aipatu bozeramaile titularrek ordezkoak izango dituzte beren ordez aritzeko edo laguntzeko.

Bozeramaile-batzordeak bilkura egingo du lehendakariak edo Udalbatza osatzen duten talde politikoetako edozein ordezkarik deialdia eginez gero. Deialdia dagokion eguneko gai-ordenarekin egingo da, gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin, urgentzia kasuetan izan ezik, eta horrelakoetan bilkuraren premiazkotasuna berretsi beharko da lehenengo puntuan. Azken kasu horretan Bozeramaile-batzordea deialdia egin eta hiru ordura egingo da gutxienez, eta gehienez ere deialdia egin eta hurrengo 24 orduren barruan.

Batzordea balio osoz bilduta geratuko da legearen barruan eratuak dauden Talde politikoek gehi bat bertaratzen direnean edo Udalbatza honetako gehiengo absolutua ordezkatzen dutenean. Alkate-lehendakaria bilkuran ez dagoenean, bertaratutako udal talde politiko botatueneko Bozeramailea izango da lehendakaria.

Bilkurara joan beharko du berak eskuordetutako Idazkari Nagusiak edo funtzionarioak, eta egindako bilkuraren, diktamenen eta emandako ebazpenen akta egingo da; gainera, akta hori edonork eskuratu ahal izango du.

Botazio-erregimena.

Bozeramaile-batzorde horren diktamen eta ebazpenak boto-gehiengoz emango dira, eta edonola ere Talde Politiko bakoitzak Udalbatzan duen zenbakizko garrantziaren arabera neurtuko dira.

V. KAPITULUA

BATZORDE BERRIEMAILEAK

14. Art. Udalbatzako kideek osatzen dituzten Batzorde Berriemaileak ebazpen-eskurantzarik gabeko organoak dira eta Batzarraren eta Gobernu Batzordearen erabakira jarri behar diren gaiei buruz azterketak eta kontsultak egin behar dituzte. Halaber, alkatearen edo zinegotzi delegatuen eskuduntzakoak diren gaiei buruzko azterketak eta kontsultak egingo dituzte, horiek egokia irizten badiote

15. Art.

1. Batzorde Berriemaileen diktamenak aginduzkoak dirá eta ez lotesleak.
2. Presazko kasuetan Gobernu Batzordeak, dagokion Batzorde Berriemaileak diktaminatu gabeko gaiei buruzko erabakiak hartu ahal izango ditu, baina, kasu hauetan, hartutako erabakiaren berri eman beharko dio Batzorde Berriemaileari honek egiten duen lehendabiziko bilkuran. Batzorde Berriemaileko edozein kidek hala proposatzen badu, gaia hurrengo Batzarraren gai-zerrendan sartu beharko da, honek, kontrol eta fiskalizaziorako dituen eskurantzen bitartez, erábakitako presa hori azter dezan.

16. Art. Batzorde Berriemaile bakoitzekoi mota, osaketa eta eskumen espezifíkoak Arautegi honetako eraskin batean datoz.

II TITULUA

FUNTZIONAMENDU ERREGIMENA

17. Art.

1. Udal Osoko Bilkurak ohiko bilera egingo du hilean behin.
2. Halaber, Osoko Bilkurak ohiz kanpoko bilera egingo du, alkate-lehendakariak izaera horrekin biltzeko deia egiten duenean, bere ekimenez edo formalki eratu den Udalbatzako edozein talde politikoren eskariz. Eskaera hori idatziz egin beharko da, bileran aztertu edo eztabaidatuko den gaia arrazoituz, eta eskatzaileak sinatu egin beharko du.
3. Formalki eratu den Udalbatzako edozein talde politikok ohiz kanpoko osoko bilkura egiteko eskatzen badu, eskaera hori egin eta hurrengo 15 lanegunen barman egin beharko du alkate-lehendakariak bilera-deia. Bertan eztabaidatu beharreko gaia ezin izango da ohiko osoko bilkura baten gai-zerrendan sartu, ezta eztabaidatzeko gai gehiago dituen beste ohiz kanpoko osoko bilkura baten gai-zerrendan ere, eskatzaileek berariaz hala baimentzen dutenean izan ezik.

   Aipatutako epe horren barman alkate-lehendakariak ez badu eskatutako ohiz kanpoko osoko bilkura deitzen, epe hori amaitu ondorengo 10. lanegunerako deituta geratuko da automatikoki".
4. Ezabatua.
5. Bilkura berezi premiatsuak 7/1985, Apirilak 2ko Legeak esigitu bi laneguneko epe gutxiengorik ematen ez denean bilkura berezia deitzeko eta arazoa edo erazoak premiatsu direnean Alkateak edo Lehendakariak deitzen dituenak dirá.

   Kasu honetan premiatsu déla Pleno Batzarra ospatzea behar da lehen puntu bezala gai zerrenda. Pleno Batzarrak hau ez badu horrela hartzen, beste gabe bilkura altxatuko da.
6. Bilkura arunterak deialdia, gutxienez, ospatu baio berrogeitazortzi ordu lehenagotik luzatuko da.
7. Deialdia, Gai-zerrenda eta akten behin-behineko idazkera bi lanegun aurrerapenez jakinaraziko zaizkie Zinegotziei beren helbidean edo horretarako izendatu lekuan.
8. Edozein Talde Politikok Gai-Zerrendan aztergaiak sartzeko aukera izango du, aldez aurretik Alkateari horren berri emanik.
9. Gai-zerrendan, aldez aurretik diktaminatu, informatu eta dagokion Batzorde Berriemailearen kontsultapean jarritako gaiak bakarrik sar daitezke.
10. Alkateak, behar bezala frogatutako premiazko arrazoiengatik, bere kasa edo bozeramaleetakoren baten proposamenez, dagokion Batzorde Berriemaileak informatu gabeko gaiak sar ditzake Gai-Zerrendan, baina kasu honetan ezin izango du gai horiei

buruzko inolako erabakirik hartu, Batzarrak horiek Gai-Zerrendan sartzea berresten ez badu.

11. Éztabaidarako eta, kasua balitz, bozketarako erabiliko diren Gai-Zerrendako gaiei buruzko agiri guztiek deialdiaren egun beretik Udal-bazkide guztien eskura egon beharko dute bertako Idazkaritzan
12. Batzarraren eraketak balio dezan, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren heren batek bertan egon behar du. Quorum honek bilkuraren denboraldi guztian iraun beharko du. Nolanahi ere, Lehendakariak eta Udalbatzako Idazkariak edota legez ordezkatzen dituenek berten egon beharko dute.
13.
    1) Batzarraren bildurak jendaurrekoak dirá. Idazkaritza Nagusiak, bilkura egin baino 48 ordu lehenago gutxienez, harén berri emango die herritarrei herriko ohizko komunikabide desberdinen bitartez. Era berean batzarraren bilkuren garapenari jarraitzeko beharrezko azpiegitura antolatuko da.

    2) Eguneko gai-zerrenda guztiak eta Batzarreei dagozkien aktak prentsari bidaliko zaizkio aktak berrikusi eta onartu ondoren.

    3) Akta eta gari-zerrenda horiek ikusi nahi dituzten herritarren escurra egongo dira

14. . :

    1) Bilkura bakoitzean Akta egingo da Udalbatzako Idazkariak sinatuko duen eta funtsean honako zehaztasun hauek azalduko dituena:
    - Eguna, hilabetea eta urtea.
    - Hasiera eta amaierako orduak.
    - Bertaratutako kideak.
    - Azterturiko gaiak. «
    - Harturiko erabakiak.
    - Izandako partehartzeen laburpena eta baita bozketena ere, baleude.

    2) Bilkura grabatzeko erabilitako zintak akta orantutakoan duseztuko dira.

II KAPITULUA

EZTABAIDAK

18. Art.

1. Udal Osoko Batzarraren bilkura hasi ondoren aurreko bilkurako akta onartuko da.
2. Bilkura arruntetan, gai-zerrendan sartutako gaiak aztertu ondoren eta erregu eta galderen txandarekin hasi aurretik, Lehendakariak galdetu egingo du eta talde politikoren batek, presazko arazoengatik, deialdiari erantsitako Gai-Zerrendan azaltzen ez den eta erregu-galderen atalena sartzen ez den gairen bat Batzarraren kontsideraziopean jarri nahi duen.
3. Edozein Zinegotzik eskatu ahal izango du, eztabaida garaian, Gai-Zerrendan sartutako espedientearen bat kendu eta bertan agiriak edo informeak sar ditezela, eta baita espedientea mahai gainean geratu dadila, estabida hurrengo bilkurarako utziz. Bi kasuotan, eztabaida amaitu ondoren eta arazoaren muinari buruzko bozketa egin aurretik bozkatuko da eskaria. Gehiengo soilak eskariaren aldekao botua emango balu, ez da erabaki-proposamena bozkatu beharrik izango. .

19. Art. Lehendakariari dagokio bilkuren garapena antolatu eta züzentzea.

20. Art. Zinegotziek ezingo dute hitza hartu, Lehendakariari horretarako baimena eskatu eta lortu ez badute. .

21. Art. Erabakiaren bat hartu nahi denean, gaiak lehenbiziz eztabaidatu eta gero bozkatu egingo dirá.

Zinegotziek eskaturiko parte hartzea, kide kopuru txikiena duen taldetik handiena duenera egingo da.

Batzarrera bildu den jendeak bilkuran parte hartu ahal izango du, aurretiaz Lehendakariari hitza eskatu ondoren. Horretarako, jendearen partaidetzak sortutako eztabaida Batzarra altxaturik egingo da.

III KAPITULUA

MOZIOAK

22.Art.

1. Mozio bat Eguneko Gai-zerrendan sartu ahal izateko, Talde-bozeramale batek eskatu egin beharko du eta bilkura egin baino hirurogeitamabi ordu lehenago aurkeztuko da.
2. Herriko edozein erakunde, entitate edo biztanlek Talde Politikoen bitartez Batzarraren Gai-zerrendan Mozioak aurkeztu ahal izango ditu.
3. Mozioaren edukinaren jakinerazpena: Proposamenaren egileek, Mozioaren edukina jakinarazi beharko diete Udal-bazkide guztiei, bi laneguneko aurrerapenez gutxienik, eta premiazko aparteko batzarrak direnean, deialdia egiten den unean.
4. Batrzarra egin aurretik, Bozeramaleen Batzordean, bederen, proposatu den mozio horren berri izan beharko du.
5. Mozioari buruzko erabakk: Aurkeztutako mozioa, oso-osorik edota atalez atal bozkatuko da, proposamenaren egileek alez aurretik onartutako moduan.

IV KAPITULUA

ERABAKIAK HARTZEA

23. Art. Udal Osoko Batzarrak, eskuarki, bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartzen ditu bere erabakiak.

24.Art.

1. Bozketari ekin aurretik Lehendakariak hari buruzko zehaztasunak eta botoa emateko modua adieraziko ditu argi eta zehazki.
2. Ohizko bozkera amaitu ondoren Lehendakariak erabakitakoa aldarrikatuko du.
3. Erabakia aldarrikaturik, eztabaidan parte hartu ez duten taldeek edo harén ondoren beren botoaren zentzua aldatu dutenek Lehendakariari botoa azaltzeko txanda eska diezaiokete.

25. Art. Hartutako erabakiaren aurkako botua eman duten Udal-bazkideek, bidezko ekintza administratibo eta judizialak tarteratzeko legezko eskubidea izango dute.

Aurreko parrafoan adierazitako ekintzengatik sortutako gastu eta kostuak Udalak ordaindu ditu, baldin eta osorik edo partzialki haien aldeko ebazpena emango balitz, nahiz eta azken ebazpen judizialak kostuetarako kondena espresurik ez egin.

V. KAPITULUA

BATZARRAK GAINERAKO GOBERNU ORGANOEN IHARDUKETA KONTROLATZEA ETA FISKALIZATZEA

26.Art. Batzarrak gainerako Gobernu Organoen iharduketa kontrolatu eta fískalizatu ahal izateko honako baliabide hauek erabiliko ditu:

a) Delegazioa duten udal-bazkideei bertara agertzeko eskatu eta informazioa jasotzea.
b) Gobernu Batzordearen iharduketari buruzko eztabaida.
c) Alkatearen zentsura-mozioa.

27. Art. Alkatearen ordez alor baten erantzunkizuna hartu duten Udal-bazkide guztiek, Batzarraren aurrean agertu beharko dute, honek hala erabakitzen duenean, beren iharduketari buruz egiten zaizkion galderei erantzuteko.

28. Art. Batzarrak, Alkatearen proposamenez edo bozeramaleetakoren baten eskariz, aparteko bilkura egitea erabaki ahal izango du Gobernu Batzordearen gestioa eztabaidatzeko.

29.Art. Alkatearen zentsura mozioa hauteskunde legeria orokorrean xehetutakoari atxekiko zaio.

VI. KAPITULUA

GOBERNU BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA

30. Art. Lehendakariak aldez aurretik deiturík, Gobernu Batzordeak bere bilkura arrunta astean behin egingo du, eta apartekoa, Lehendakariak hala erizten dionean.

31. Art.

1. Gobernu Batzordearen bilerak ez dirá jendaurrekoak izango. Dena den, gai-zerrenda eta aktaren kopia bana Udalbatza osatzen duten talde guztiei bidaliko zaizkie.
2. Gai Zerrenda berrogeitazortzi ordu lehenago egingo da eta erabakien laburpena iragarki-taulan erakutsiko da eta Udal taldeei bidaliko zaie; herriko komunikabideei ere bidaliko zaie Gobernu Batzordeak berak hua aztertu ondoren.
3. Gobernu Batzordearen akta eta gai-ordenak eskatzen dituzten herritar eta taldeen eskura egongo dirá.
4. Gobernu Batzordeko bileretara, batzordekideez gain, eskatzen duen udalbatzakide orok Joan ahal izango du, gai-zerrendan azaltzen diren gaietaz aritzearren

32. Art. Bilkura bakoitzean Akta egingo da Udalbatzako Idazkariak sinatuko duena eta funtsean honako zehaztasun hauek azalduko dituena:

- Eguna, hilabetea eta urtea.
- Hasiera eta amaierako orduak.
- Bertaratutako kideak.

- Hartutako erabakiak. i
- Izandako partehartzeen laburpena eta baita bozketena ere, baleude.

VII KAPITULUA

BATZORDE BERRIEMAILAREN FUNTZIONAMENDUA

33. Art. Batzorde Berriemaileek, egiten duten lehenengo bilkuran, beren bilkuretako erregimena ezarriko dute eta honek indarrean jarraituko du aldatzea erabakitzen ez den bitartean, guzti hori, Lehendakariaren iritziz garrantzizko edo premiazko gaiak aztertzeko egin behar diren aparteko bilkuretarako deiaren kalterik gabe.

34. Art. Batzorde Berriemaileetan Alkateak edo beronek, Batzordearen beraren proposamenez bertan egindako hautaketaren ondoren, delegaturiko Zinegotziak ihardungo du lehendakari.

35. Art.

1. Batzorde bakoitzean osaketa Udalbatzan ordezkatuiko Talde politiko desberdinen artean dagoen proportzionaltasunari egokitzeko modukoa izango da. formalki eratutako talde politiko bakoitzetik gutxienez kide bat izatea bermatuko da.
2. Talde bakoitzaren ordezkapenez Batzorde bakoitzean parte hartu behar duten

   Udalbatzako partaideen etxekipena, bertako Bozeramaleak Alkateari zuzendutako idazki bidez egingo da, eta Batzarrari horren berri emango zaio.
3. Edozein Zinegotzi Batzorde Berriemaileen bilkuretara joan daiteke, nahiz eta bertako kide ez izan, eta kasu horretan hitz egiteko eskubidea izango du baina ez botoa.ematekoa.
4. Batzordea balio osoz eratzeko Udalbatzako kideen l/5a ordezkatzen duen zinegotzi-kopurua bertaratu behar da.

   Lehenengo deialdian batzordea balio osoz eratzea lortzen ez bada, bigarren deialdi bat egingo da ordu erdi geroago eta orduan nahikoa izango da batzordeburua eta batzordekide bat izatea eratu dela jotzeko.

36. Art. Udaleko Idazkaria Batzorde Berriemaile guztien berezko Idazkaria da; hala ere, bere kargua udal enplegatuen, administrari edo antzekoen esku utzi ahal izango du.

37. Art. Batzorde Berriemaileen bilkuretan bertako Lehendakaritza eta Idazkaritza lanetan legez dihardutenek bertan egon beharko dute. Lehendakaritzan ihardun behar duena bertan ez balego batzordekide zaharrenak ordezkatuko du.

38. Art. Batzorde informatzaileen bileretara bertan eztabaidatzen edo aztertzen diren gaiei buruz interesa duten herritarrak Joan ahal izango dirá eta sortzen diren eztabaida horietan parte hartu ahal izango dute.

39. Art. Inongo Batzordek ezingo du besteren eskumeneko haiei buruz eztabaidatu. Hala ere, bi Batzorde Berriemaile edo gehiagoren bilkuretarako deia egin daiteke, guztiei dagozkien gaiez hitz egiteko. Kasu hauetan, Alkateak izendatutako Zinegotzia izango da Lehendakari. Arautegi Organiko honekin batera datorren eraskinean Batzorde bakoitzaren eskumena azaltzen da.

40. Art.-

1. Batzorde bakoitzeko Lehendakariari dagokio Gai-Zerrenda prestatzea, deia egitea.
   - Batzorde Berriemailean mahaiburu izatea eta hura bideratzea.
   - Gobernu Batzordearen eta Batzarraren Gai-Zerrendarako gaiak proposatzea.
   - Batzorde Berriemaileari eta Gobernukoari, bere eskumen-arloko gaietan egindako gestioen berri ematea
   - Gobernu Batzordeari eta Batzorde Berriemaileari bere agintaritzaren iharduera-erizpideak proposatzea.
   - Bere iharduueraren barruan sartutako ahalmen guztien berri ematea.

2. Gutxienik berrogeitazortzi orduko aurrerapezez egingo da deialdia, eta Batzordeko kideei eta hala eskatzen duten herri-erakunde eta hiritarren entitateei Gai-Zerrenda banatuko zaie.
3. Zinegotziek Gai-Zerrendan edozein gai sartzea eskatu ahal izango dute.

41. Art. Batzorde informatzailearen buruak erabaki dezake bilera herrian zehar Udalak dituen lokaletako batean egitea, auzo jakin bati dagozkion gaiak eztabaidatzearren edo Udalaren funtzionamenduaren berri ematearren.

42. Art. Batzorde Berriemaileetan ezin aztertuko dirá Gai-Zerrendan aldez aurretik sartu ez diren gaiak, Batzordeak presazkotzat jotzen ez baditu behintzat.

43. Art. Batzordeen txosten eta diktamenak ez dirá, inoiz ere, erabakitzaileak izango, haien zeregina gaiak aztertu eta prestatzea bait da.

44.Art. Diktamena eta txostenak bertaratu diren batzordekide titularren botoen gehiengoz onartuko dirá; bileraren akta, berriz, buru izan denak eta idazkari-lanetan aritu denak sinatuko dute.

Diktamenarekin bat ez datorren batzordekideak aktan bere kontrako botoa jaso dadin eskatu ahal izango du.

45. Art.
1. Batzorde Berriemaileek egindako bilkura bakoitzean Akta egingo da eta Idazkariak izenpetuko du, bertan-bereziki honako zehaztasun hauek azalduko direlarik: bertaratutako Zinegotzien izenak, aztertutako gaiak, emandako diktamenak eta, intersatuak horrela eskatzen dutenean, izandako partehartzeen laburpena.
2. Batzorde Berriemaileen Akta Zinegotzi guztiei eta eskatzen duten herri-erakunde eta herritarren entitateei banatuko zaie.

46.Art. Batzorde Berriemaile bakoitzeko Idazkariari dagokio Gai-Zerrendako gaiak prestatzea, Batzordeak emandako diktamenak idaztea, Batzordeei igorritako espedienteak kontrolatu eta zaintzea eta diktamenak berehala izapidatzea.

47.Art. Bilkura bakoitzean idatzitako aktak, dagokien zanbaki-hurrenkeraren arabera artxibatuko dirá.

VIII KAPITULUA

LANSARIAK

48. Art. Talde bakoitzarentzat lansari finko bat izandatuko du Korporazioak Udal Aurrekontuaren kargura.

48.bis Art.

1. Alkateari eta beren kargutan dedikazio esklusiboa daukaten Korporaziokideei alta emango zaie Aseguru Sozialeko Errejemen Orokorrean eta Korporazioak zehazturiko lanarengatiko sariak eta nahitaezko gastuengatiko indemnizazioak jasoko dituzte Udal Aurrekontuaren kontura. Dedikazio esklusiboa ez daukaten Korporaziokideek, beren dedikazioari dagozkion indemnizazioak jasoko dituzte Udal Aurrekontuaren kontura.
2. Korporazioak zehaztuko du dedikazio esklusiboa daukaten eta ez daukaten Korporaziokideen zerrenda. Zerrenda murriztu edo zabaldu egin daiteke Korporazioaren beharren eta aurrekontuko aukeren arabera.

IX. KAPITULUA

HERRITARREN ESKUHARTZEA

49. art.- INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA. Pertsona guztiek dute informazio gardena, objektiboa eta kalitatezkoa jasotzeko eskubidea, udal jarduerei buruzko ezagutza edukitzeko.

50. art.- ARTXIBOAK ETA ERREGISTROAK KONTSULTATZEKO ESKUBIDEA. Pertsona guztiek Udalaren eta bere erakunde autonomoen ekintza eta erabakien eta horien aurrekarien kopiak eta egiaztagiriak jasotzeko eskubidea dute, baita udal artxibo eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea ere, indarrean dagoen legerian aurreikusita dauden hitzetan eta mugekin. Udal administrazioak eskubide hau ukatzeko edo mugatzeko, ebazpen arrazoitu baten bidez egiaztatu beharko da.

Egindako eskaerei lehenbailehen erantzun beharko zaie, hilabeteko epean.

51. art.- ABIAN DIREN PROZEDUREI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA. Pertsonek eskubidea dute interesatu gisa ageri diren prozeduren izapideen egoera ezagutzeko eta horietan jasotako agirien kopiak eskuratzeko, baita informazioa eta orientabideak jasotzeko ere, egin nahi diren jardueretarako eskatutako baldintzei buruz.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedapen orokorrak prestatzeko aurreikusitako prozeduran, aurreikusitako entzunaldi-izapidea eskainiko zaie elkarteei, baldin eta horien helburu soziala edo xedea erregulatu beharrekoarekin zuzenean loturik baldin badago.

52. art.- AURREKONTUEN EGOERA EZAGUTZEKO ESKUBIDEA. Pertsona guztiek eskubidea dute Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontu arruntaren izapide eta exekuzio-mailaren izapide-egoera zein den ezagutzeko.

53. art.- UDALAREN ERABAKI ETA JARDUEREI BURUZKO INFORMAZIOA ZABALTZEA

1.-Udalak bere esku dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu udal jarduerari buruzko informazioa emateko eta herri osoan ahalik eta zabalkunderik handiena erraztuko du. Bereziki, organo eskudunak onetsitako hirigintza-planak eta proiektu estrategikoak, jendaurreko informazio-epeak eta jardueren agenda emango dira ezagutzera.

2.-Herritarentzako informazioari dagokionez, deialdiak, gai zerrendak, aktak eta bestelako informazio interesgarria iragarki taularen bidez, udal panelen bidez eta udal web orriaren bidez jakinaraziko dira batez ere.

54. art.- UDALAREN WEB GUNEA. Udal administrazioak informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabil daitezela sustatuko du bere web orria garatuz, ondorengo helburu hauei begira:

1.- Udal administrazioarekin egin beharreko kudeaketak ahalik gehiena erraztea administrazio elektronikoko zerbitzuak ezarriz.

2.- Udal gobernuaren administrazio-jarduerari buruzko eta udal erakundearen jarduerari buruzko informazio eguneratua eskaintzea.

3.- Administrazioaren eta herritarren artean komunikazio-bide elkarreragile bat finkatzea.

PARTE HARTZE AKTIBOA

55. art.- PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

1.- Herritarren parte-hartzea demokrazia parte hartzailearen osagarri eta hura sakontzeko bide bat dugu. Horregatik, pertsona guztiek udal eskumeneko gai publikoetan norbanako gisa nahiz kolektibo gisa esku hartzeko eskubidea dute.

2.-Udalak partaidetza-eskubideak benetan gauzatu daitezela sustatuko du, horiek guztiz betetzea eragozten duten oztopoak ezabatuz.

3.- Udal gai publikoetan parte hartzeko eskubide hori honako beste eskubide hauek osatzen dute:

- Eskaerak egiteko eskubidea
- Ekimenak bultzatzeko eskubidea
- Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea
- Entzunaldi publikorako eskubidea
- Herri-kontsultarako eskubidea
- Batzordeetan, osoko bilkuretan eta aholkularitza kontseiluetan parte hartzeko eskubidea

56. art.- ESKAERAK EGITEKO ESKUBIDEA Pertsona guztiek dute Udal gobernuari eskaerak edo eskabideak egiteko eskubidea, indibidualki nahiz taldean, udal eskumeneko edozein gairi buruz, bai eskatzaileari dagozkion gaietan eta baita interes kolektibo edo orokorra dutenetan ere. Eskaera idatziz aurkeztu beharko da, eta zuzenbidean baliagarria den edozein bide erabili ahal izango da, eskatzailearen nortasuna eta eskaeraren helburua behar den eran egiaztatzeko modua ematen badu, Udalak erabil ditzakeen baliabide telematikoak barne.

57. art.- EKIMENAK BULTZATZEKO ESKUBIDEA

1.- Udal hauteskundeetan sufragio aktiborako eskubidea duten herritarrak herri-ekimenaz baliatu ahal izango dira, udalaren eskumeneko gaiekin lotutako erabaki edo jarduera proposamenak edo erregelamendu egitasmoak aurkeztuz.

2.- Ekimen hori, gutxienez, udalerriko herritarren%15ak sinatu beharko du, eta Udal Batzarrean eztabaidatu eta horren inguruko bozketa egin beharko da, gaiaren arabera organo eskumenduak ebaztearen kalterik gabe. Dena dela ere, udaleko idazkariari horren legezkotasunaren inguruko txostena egin dezala eskatuko zaio eta, ekimenak Udalaren ekonomia arloko eskubide eta betebeharrei eragiten badie, kontu-hartzaileari ere bai

3.- Proposatutako ekimen hori Udal Batzarraren eskumenekoa baldin bada, proposamen gisa izapidetuko da. Beste udal organo baten eskumenekoa baldin bada, mozio gisa izapidetuko da.

58. art.- KEXAK, ERREKLAMAZIOAK ETA IRADOKIZUNAK AURKEZTEKO ESKUBIDEA

1.- Pertsona guztiek udal zerbitzu publikoen funtzionamenduari buruzko kexak eta erreklamazioak aurkezteko eta iradokizunak egiteko eskubidea dute.

2.- Udal zerbitzuen egitura edo funtzionamenduari buruzko kexa, erreklamazio eta iradokizunak edo edozein udal organoren jardun irregular edo anormalari buruzkoak, dagokion espedientearen bidez izapidetuko dira ofizioz, benetan eraginkorrak izan daitezen.

59. art.- ENTZUNALDI PUBLIKORAKOKO ESKUBIDEA

1.- Entzunaldi publikoa udal arduradunen eta herritarren artean egun jakin batean egiten den topaketari esaten zaio. Topaketa horietan udal arduradunek zenbait jardueren edo jarduketa-programen berri ematen dute eta herritarren proposamenak jasotzen dira.

2.- Alkatetzak honelako entzunaldi bat, gutxienez, deituko du urtean, udalaren programa aurkezteko, iradokizunak jasotzeko eta herritarren iritziaren berri izateko.

3.- Horrez gain, urtean zehar behar hainbeste deitu ahal izango dira, bai udalaren ekimenaz edo baita honako hauek proposaturik: a) 16 urtetik gorako 300 sinadurak proposatuta. b) Elkarteen udal erroldan izena emanda daudenetatik gutxienez %10ek proposatuta.

60. art.- HERRI-KONTSULTA

1.- Hauteskunde zentsuan agertzen diren herritar guztiek dute udalaren eskumen propioko gaiei buruz eta herritarren intereserako bereziki garrantzizkoak diren gai lokalei buruz kontsultatuak izateko eskubidea, Tokiko Ogasunaren inguruko gaiei buruz izan ezik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. bis artikuluaren arabera.

2.- Herri-kontsulta egitea erabakitzeko beharrezkoa izango da udal batzarrak horren aldeko erabakia erabateko gehiengoz hartzea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 71. artikuluan ezarritako prozedura jarraitzea.

3.- Kontsulta-ekitaldi berean galdera bat baino gehiago egin ahal izango da. Urtean ezin da artikulu honetan adierazitako bi kontsulta baino gehiago egin, eta legegintzaldi bakoitzean ezingo da kontsulta bera errepikatu.

61. art. BATZORDEETAN, OSOKO BILKURETAN ETA AHOLKULARITZA KONTSEILUETAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA Pertsona fisikoek eta juridikoek batzordeetan, osoko bilkuretan eta aholkularitza kontseiluetan parte hartzeko eskubidea dute, araudi honetan ezarritakoaren arabera eta kontseilu bakoitza arautzen duen araudiaren arabera.

X KAPITULUA

ZINEGOTZIAK

62. Art.

1. Zinegotzi guztiek, beren informaziorako, Alkatetza eta bere Delegatuen Dekretu-Liburuak erabiltzeko eskubidea izango dute.
2. Zinegotzi orok dauka eskubidea idazkari nagusiari, kontu-hartzaileari edota teknikariei egokiak jotako txostenak eskatzeko.
3. Halaber, zinegotzi orok informatzeko eskubidea dauka, hau da, informatzeko alkate nahiz delegatuen dekretu-liburuak ikusteko.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi Organiko hau Talde Politiko baten eskariz aldatu ahal izango da eta aldaketa hori Udalbatzako legezko kopuruaren gehiengo absolutuak onartu beharko du.

Nolanahi ere, udal agintalde honen amaieran eta hurrengo udal legislaturaren hasieran derrigorrez berrikusiko da.

Arautegi Organiko honetan aurrikusi ez den guztian, Azarean 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuak onartutako Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Arautegian aurrikusitako xedapenak erabili ahal dirá.